



LEGAZPIKO
UDALA

HAURREN UDA IKASTAROA – 2021

OINARRIAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Covid-19aren eraginpean jarraitzen dugun arren, aurten Udalak haurren uda ikastaroa prestatu eta eskainiko du; hala ere, une oro, pandemiaren egoerak markatuko du uda ikastaroaren martxa.

1. Jardueraren helburua, datak eta ordutegia

Aurten uztaileko haurren ikastaroa eskainiko du Udalak, haurren hizkuntza ohituretan eraginez, euskararen ezagutza sendotzeko eta euskararen erabilera sustatzeko. Jarduera honetan osasun agintariek ezarritako irizpideak beteko dira.

Haurren uda ikastaroa! jarduera 2021eko uztailaren 5etik 2021eko uztailaren 23 bitarte egingo da.

Jarduera honek ordutegi hau izango du: 09:30etik 12:30ak arte.

2. Nork har dezake parte?

2011 eta 2018 urteen artean jaiotako haurrek har dezakete parte:

- HH-2 eta HH-3 (2018 eta 2017an jaiotakoak), zaintza hezitzailea. Geletan egongo dira, Laubideko hexagonoan eta Latxartegin.
- HH-4tik LH-4ra (2016, 2015, 2014, 2013, 2012 eta 2011n jaiotakoak), aire librean egongo dira, osatuko diren haur-taldeen arabera erabakiko diren guneeetan.

3. Izen-ematea

Izen-emateko epea 2021eko maiatzaren 19tik 2021eko maiatzaren 28ra izango da.

Ahal dela, izen-ematea Internet bidez egingo da helbide honetan:

<https://labur.eus/haurrenudaikastaroa>

Izen-ematea Internetez egiteko baleko helbide elektronikoko bat izan behar duzu. Izen-emate epea amaitzen denean, helbide horretan jasoko duzu izen-emate orria beteta eta zuk zeuk inprimatu eta sinatu beharko duzu eta **ekainaren 4rako HAZen entregatu**. Internet bidez egindako izen-emateek ez dute balioko ez bada dokumentua sinatuta entregatzen.

Bestalde, izen-ematea aurrez aurre egin daiteke HAZen.

4. Plazak eta taldeak

Taldeak osatzeko haur-kopuruari dagokionez, osasun-agintariek ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat.



**LEGAZPIKO
UDALA**

Taldeek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Talde bakoitzak begirale bat izango du.
- Talde bakoitzak gunea bat izango du esleituta.
- Begiraleen koordinazio- eta udalekuen zuzendaritza-lanak egingo dituen arduradun bat egongo da, begiraleen lana eta aktibitate guztiak koordinatzeko.

5. Matrikula prezioa

Seme-alaba bakarra:	56,00 €
Bigarrena:	35,85 €
Hirugarrenetik aurrera:	doan

6. Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Haurren uda ikastaroan izen-emateko eman dituzun datuak LEGAZPIKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartuko dira, Datu pertsonalak babestearen gaineko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko Legea betetze aldera.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzekoa den legegintza betez.

Edozelan ere, eskaria izenpetzean eskatzailea informatuta dagoela ulertuko da. Modu berean, esandako xedeetarako eta Legean jasotako helburuetarako bere datuak erabiltzeko oniritzia ematen duela ulertuko da.

Gogoan izan eskainitako datuetara sarbidea duzula eta datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea duzula, Legean ezarritakoaren arabera betiere. Horretarako, eskaera aurkez dezakezu udaletxean honako datuak adieraziz: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskaera zehatza, eguna, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena. Eskaera hori honako helbidera bidaliko da: Euskal Herria plaza 1. 20230 Legazpi.

Erosoagoa egiten bazaizu, eskubide horiek Udalaren web orriaren bidez erabil ditzakezu helbide honetan: www.legazpi.eus.

Halaber, "Datu Pertsonalen Babesaren arloko jardunbide Egokien Eskuliburua EAEko toki erakundeetarako" izeneko gidaliburua kontsulta dezakezu interneteko helbide hauetan: www.eudel.eus eta www.avpd.es.

7. COVID-19a saihesteko neurriak

Unean-uneko egoeraren arabera eta osasun agintariek agindutakoaren arabera, neurriak zorroztu edo arindu ahal izango dira.

Kontrola eta prebentzioa

Ekintzen antolaketa neurriak:

1. Egunero jarduera hasi aurretik, taldeek erabiliko dituzten guneak garbitu eta desinfektatuko dira.
2. Parte-hartzaileei zer taldetakoak diren jakinaraziko zaie, eta begiralearekin elkartuko dira jarduerari ekiteko esleitu zaien espazio berezitan. Begiraleak harrera non egingo den jakinaraziko die bere taldeko kideei.
3. Talde guztiek eskuragarri izango dute gel hidroalkoholkoa. Eskuak jardueraren hasieran eta amaieran garbituko dira, baita ere hezitzaileak beharrezkoa ikusten duen bakoitzean.
4. Ekintzak, ahal denean, aire librean egingo dira.
5. Taldeak gune desberdinetan egingo dira.
6. **Derrigorrezkoa izango da musukoa erabiltzea** 1,5 metroko distantzia ezin bada gorde, beraz, LH1etik gorako haur guztiek etxetik ekarri beharko dute musukoa.
7. Goizean zehar, beti saiatuko gara, dinamika eta joko batzuk distantziarekin egiten, musukorik gabe, hau da, 1,5 metroko distantzia errespetatuz.
8. Printzipioz, haur bakoitzak harremana bere taldeko hurrekin eta begiralearekin bakarrik izango du.
9. Haurren bat edo begiralaren bat **Covid-19rekin gaixotzen bada edo susmoa badago, Osakidetza protokoloak jarraituko dira**, eta egoeraren arabera gerta liteke talderen batean jarduera bertan behera geratzea.

Gurasoek hartu beharreko neurriak:

1. Egunero osasun-egoera onean joango da haurra, horretarako, tenperatura hartuko zaio haurrari eta **37°C edo gehiago baldin badu edo bestelako sintomarik** badu (sukarra, eztula edo airea falta delako sententzioa eta sintoma atipikoak, hala nola giharretako minak, beherakoak, bularraldeko mina eta zefaleak), gurasoek **ez dute haurra aisialdiko jarduerara bidaliko**. Gainera, haurra ez badoa, gurasoek arduradunari ez joatearen zergatia azalduko diote (mugikorraren edo beste bide baten bidez).
2. Nolanahi ere, parte-hartzaileak ezin du joan eta ezin du jardueran parte hartu COVID-19ak eragindako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada 2 metro baino gutxiagoko distantziara, guztira 15 minutuz baino gehiago metatuta 24 ordutan, maskara etengabe eta behar bezala erabili gabe (sintomarik gabe ere). Kontuan hartu beharreko aldia kasu positiboaren sintomak hasi baino 2 egun lehenagokoa izango da, edo sintomarik ez duten pertsonen kasuan, diagnostikorako lagina hartu baino 2 egun lehenagokoa. Kasu horretan, ez dute joan behar, eta osasun-zentroarekin jarri beharko dute harremanetan.
3. Etxetik irten aurretik eskuak ura eta xaboiarekin garbituko ditu haurrak.
4. 6 urtetik gorako hurrek (LH) **etxetik ekarri beharko dute musukoa jantzita**.
5. Haurrak heldu batekin joango dira dagokien gunera eta bertara joatean eta bertatik jasotzean, gorde beharreko distantzia gordeko da beste guraso eta hurrekiko.

6. Jatekorik ez bidaltzea gomendatzen dugu, baina, eramanez gero, haurrak ezingo du inorekin partekatu.
7. Haurrek **ez dute inolako jostailurik** eramango etxetik.
8. Udalak arretaz jarraituko ditu eskura dituen protokolo eta neurri guztiak. Hala ere, Covid-19 kasuren bat agertuz gero, familiek uko egiten diote Udalaren aurkako edozein erreklamazio egiteari eta/edo kalte-ordain eskatzeari.
9. Ekintzak, jolasak,.... unean uneko osasun-egoerara egokituko dira.

Gurasoek egin beharrekoak:

- COVID-19a saihesteko ezartzen diren higie- eta prebentzio-neurriak irakurri, onartu eta bete.
- Haurrak ez direla arrisku-talde den inorekin bizi adierazi, edo, hala bada, haurra haien erantzukizunpean parte hartzen duela azaldu.
- Udalak eskura dituen protokoloak eta neurri guztiak ardura handiz jarraituta ere, COVID-19 kasuren bat agertuz gero, gurasoek ez diote inolako kalte ordainik eskatuko Udalari. Horrez gain, osasun-agintarien neurriak beteko dituzte, hala nola, berrogeialdia.
- Uneko osasun-egoeraren arabera, Udalak har ditzakeen neurri guztiak onartu.

Legazpin, 2021eko maiatzaren 18an